AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRIZAINGO SAILA

2634

EBAZPENA, 2012ko maiatzaren 23koa, Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearena, zenbait lagun Ertzaintzako karrerako funtzionario izendatzeari buruzko 2012ko maiatzaren 18ko Ebazpena Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko iragarki-oholean jarri den data jakinarazteko dena.

Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente Kategorian sartzeko hautaketa prozedurarako deia egiten duen Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2009ko uztailaren 30eko Ebazpenaren hogeigarren oinarriarekin bat etorriz (irailaren 4ko EHAA, 170. zk.), eta abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuaren 12. artikuluak ematen dizkidan eskumenak direla bide, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordeak emandako zenbait lagun Ertzaintzako karrerako funtzionario izendatzeari buruzko 2012ko maiatzaren 18ko Ebazpena Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko iragarki-oholean 2012ko maiatzaren 18an argitaratu dela jakinarazten da.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Herrizaingoko sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik hasita, hala xedaturik baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. eta 114. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 23a.

Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordea,
NÉLIDA SANTOS DÍAZ.